



**Arartekoaren ebazpena, 2013ko martxoaren 8koa. Horren bidez, Artziniegako Udalari gomendatzen zaio La Dehesako bide publikoa delakoari lotutako espedientea prestutasunez izapidetu dezala.**

### Aurrekariak

1. (...) andreak kexa bat aurkeztu zuen erakunde honetan Artziniegako Udalak ez baitu jarduerarik bideratu, ezta erantzunik eman ere, behin eta berriro egindako salaketaren aurrean. Salaketaren arrazoia da ez dela betearazi Dehesa edo Braceras bidea delakoaren mugak aldatzeari buruzko osoko bilkuraren erabakia.

Pertsona horrek kexaren bidez azaldu digu 2008ko maiatzaren 14an eta gero berriz 2009ko urtarrilaren 13an eta otsailaren 20an, salaketa orria aurkeztu zuela 3. poligonoko 99. lursailaren jabeak itxiera egin zuelako 6-7 metro linealeko luzeran eta itxiera bidearen barruko aldera mugitu zuela 30-40 zentimetrotan. Ondoren, itxiera atzera eraman zuen arren, bide publikoren 20 bat zentimetro hartzen jarraitu zuen.

Bide publikoaren zabalera eta horri dagokion azalera murrizteaz gain, jarduera horrek zailtasuna eragiten die bertatik pasatzen den zenbait ibilgailuri; eta une hartara arte ez zegoen bertatik igarotzeko inolako arazorik.

2. Aurreko salaketen ondorioz, Artziniegako Udalak, 2009ko martxoaren 5eko osoko bileran, erabaki zuen salatuari eskatuko ziola Dehesako bidea inbaditu gabe bere lursailean hesolak jar zitzan.

Ondoren, 2009ko maiatzaren 5eko erabakiaren bidez, udalbatzak erabaki zuen Dehesako bidea berreskuratzeko espedientea abian jarriko zuela. Bide hori Santa Coloma auzoan kokatuta dago eta jarduera hori burutzeko Arabako Foru Aldundiaren laguntza teknikoa eta finantza-laguntza eskatu zuen.

Erabakiak udaleko arkitekto aholkulari teknikoak egindako txostena aipatzen zuen eta, beste batzuen artean, honako ohar hauek barne hartzen zituen:

- Inolako zolaketarik ez duen landa-bide bat da, sarbidean harrizko horma batzuen bidez eta gainontzeko ibilbidean hesolen eta alanbre arantzadunaren bidez mugarriztatuta dagoena.
- Bideak guztira 1.320 metro neurtzen ditu gutxi gorabehera. Zabalera aldakorra da ibilbide guztian zehar, hau da, zati batzuetan 3 metroko luzera dauka eta beste batzuetan, aldiz, 2,40 metrora murrizten da.
- Bidea, azken tartean, desagertu egiten da; izan ere, pinu-sail batek ibilbidea inbaditu du gutxi gorabehera 250 metroko luzera duen tarte batean. Bidea berriro ikus daiteke errekatxo bat pasatzen den gunean.





Ebazpen hori ez da bete eta erreklamatzailleak betetzea exijituz hainbat idazki aurkeztu dituen arren (2009. urtetik 2012. urtera arte), udalak ez du gaiaren inguruan ezer egin.

3. Artziniegako Udalak erakunde honen errekerimendu bat eta ohartarazpen bat jaso ostean, gure informazio eskaerari erantzun zion 2012ko azaroaren 4ko osoko bileraren erabakia helaraziz.

Erabaki horren arabera, 2009ko azaroaren 12an Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak adierazi zuen bidea berreskuratzea eta inbasio posibleak kentzea udalaren ardura dela, ondasunaren titularra baita. Halaber, azaldu zuen ez dagoela ados zabalera 3 metrokoa izan beharko litzatekeela dioen oharrekin; izan ere, garai batean gurdiek erabiltzen zuten bide zahar bat da eta bide horien ohiko zabalera 2,5 metrokoa izan ohi da. Horregatik guztiagatik, ondorioztatu zuen dimentsioak aintzat hartuta ezingo zela egokitzapen obrarik egin mugakideetan eragina eduki gabe eta, konponketaren bat eginez gero, gutxienez 2 metroko zabalera duen lagapena beharrezkoa litzatekeela.

Informazio hori erreklamatzaileri jakinarazi zioten 2009ko azaroaren 24an eta adierazi zuten ezin zela inolako egokitzapen obrarik egin. Halaber, aitortu zuten bidearen trazadura berreskuratzea udalaren ardura zela (horixe da hasieratik eskatzen zuena).

Bestalde, erabakiaren arabera, jabetza berreskuratzeko administrazio ekintza bat bideragarri izan dadila ondasunaren jabetza publikoa egiaztatu behar da, baita horren jabetza-nahasmendua ere. Horretarako, ofiziozko berreskuratze-prozeduran udalaren ondasunak ezin hobe identifikatuta agertu behar dira azaleraren gainean, hortaz, mugen inguruan zalantzak daudenean, alde aurretiko mugarritzapena beharrezkoa da.

Horregatik, 2009ko maiatzaren 5eko erabakia bertan behera uztea eta mugarritzatzeko administrazio espedientea abian jartzea erabaki zen. Hori aurrera eramateko, Arabako Foru Aldundiaren laguntza teknikoa eskatu zuten.

Aurrekariak ikusita, ebazpena ematea egokitzat jo dugu, ondorengoak kontuan harturik:

### Gogoetak

1. Lehenik eta behin, azpimarratu behar dugu erreklamatzailleak eskatzen duena zera dela: gutxienez 2008. urtetik ezaguna den bide publiko baten inbasioari lotutako arazoa konpon dezaten. Hala ere, orain arte ez da aurrerapausorik eman jabari publikoaren defentsan.

2012ko azaroaren 4ko erabakiak, Artziniegako Udalak burututako azken jarduerak, erakunde honek bidalitako informazio eskaerari eta geroagoko





errekerimenduari erantzuten die. Azken bi horiek interesdunak aurkeztu zituen eta erantzunik jaso ez zuten erreklamazioak dituzte hizpide. Aurrerago erabaki horren inguruan sakontzearen kaltetan izan gabe, udaleko administrazioak ahoz emandako informazioaren arabera, Arabako Foru Aldundiak aditzera eman zuen udalak berezko bitartekoen bidez espedientea izapidetu behar duela eta, horren ostean, ez da inolako jarduerarik bideratu espedientearen izapidetzean aurrera egite aldera.

Espediente horien izapidea konplexua da lehengo artxiboak eta beste erregistro batzuk ikertu behar baitira, horrek bidezko agiriak biltzeko dakartzan zailtasunekin. Dena den, beharrezkoa da egindako eskaera edo salaketari arrazoizko denboran erantzuna ematea ondasun publikoen defentsa interes orokorrekoa baita. Laburbilduz, administrazioaren jarduerarik ezak, erantzunik ezak eta legezko ahalmenen gauzatzeari uko egin izanak ondare publikoaren defentsari dagokionez ordenamendu juridikoaren ez betetzea islatzen dute.

2. Udalak hartutako erabakian adierazi duen moduan, toki erakundeek euren ondasunak eta eskubideak babeste aldera beharrezkoak diren ekintzak abian jartzeko betebeharra daukate (Toki Araubidearen Oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 68. artikulua).

Xedatutako ekintzetako bat hau da: bere jabetzako ondasunen eta partikularren ondasunen arteko mugarriztapena sustatzeko eta gauzatzeko ahalmena, betiere, mugak zehaztugabeak baldin badira edo usurpazio zantzuak baldin badaude (ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuak onartutako Toki Erakundeen Ondasunen Araudiaren –OA- 56. artikulua).

Mugarriztatzea honetan datza: egiaztatzeko eragiketa teknikoak burutzean eta, hala badagokio, erabat egiaztatutako egoera juridikoak zuzentzean. Eragiketa horien xedea aipatutako bidea mugatzea izango da, baita horren gainean egitate-jabetza behin-behinean aitortzea (OAren 58. artikulua).

OAren 58. artikulua, bere aldetik, hauxe xedatu du:

Hori guztia aintzat hartuta, esan dezakegu mugarriztatzeko espedienteari hasiera eman ahal izateko, adierazitako gutxieneko edukia barne hartzen duen memoria egin behar dela. Dena den, 2012ko azaroaren 4ko udalbatzaren erabakiak ez du argitzen agiri hori egin den eta espedienteari gaineratu zaion. Erabakian azaltzen da Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailaren landa-azpiegiturako atalari laguntza teknikoa eskatuko zaiola *“El expediente de deslinde se iniciará mediante acuerdo que se tomará previo examen de una Memoria, en la que necesariamente habrá de hacerse referencia a los siguientes extremos:*

- *Justificación del deslinde que se propone.*
- *Descripción de la finca o fincas, con expresión de sus linderos generales, de sus enclaves, colindancia y extensión perimetral y superficial.*





- *Título de propiedad y, en su caso, certificado de inscripción en el Registro de la Propiedad y, especialmente, informaciones posesorias que, en su caso, se hubieran practicado y actos de reconocimiento referentes a la posesión a favor de la Entidad Local de los bienes que se tratare de deslindar.”*

Memoria hori ezinbestekoa da mugarriztatzearen ondoriozko gastuen aurrekontua zehaztu ahal izateko. Gainera, mugaketari dagokionez, korporazioaren hasierako posizioa zehazten duen agiria da, OAren 59. eta 60. artikuluekin bat eginez. Korporazioak mugaketa adosten duenean mugakide diren lursailen jabeei horren berri emango zaie eta, hala badagokio, baita beste eskubide errealeen titularrei ere. Horrez gain, lurralde historikoaren aldizkari ofizialean iragarriko da eragiketak hasteko ezarritako data baino hirurogei egun lehenago.

Azkenik, jarraitu beharreko prozeduraren laburpen gisa, epe horretan interesdunek euren eskubideak egiaztatze eta babeste aldera egokitzen jotzen dituzten agiri guztiak aurkeztu ahalko dituzte, eragiketak hasi eta hogeit hamar egun lehenagora arte (OAren 62. artikulua).

Udalbatzaren erabakia ikusita, memoria aipatzen ez duena, frogak eta agiriak aurkezteko ezarritako baldintzak eta epeak barne hartzen dituen jakinarazpena xedatzen ez duena eta mugarriztatzearen erabakia dagokion lurralde historikoaren aldizkari ofizialean argitaratzeko beharra ezarri ez duena; uste dugu udalak ez duela berriaz adostu legean ezarritako mugaketa espedientearen hasiera, baizik eta asmoen aitortze bat. Bertan, foru erakundearen laguntza eskatu da baina, dirudienez, ez da onartu.

Horrenbestez, udalak mugaketa espediente gaiaz zuzendutako neurriak hartu behar ditu. Are gehiago, bide publiko baten usurpazio posible baten aurkako salaketaren izapidetzeari dagokionez, sei urteko atzerapena egon dela aintzat hartuta. Salaketa horren bidez, bidearen mugak mugakide diren jabeekin eztabaidatzeaz gain, larriagoa den kontu bat zalantzan jarri da, izan ere, trazaduraren zati bat desagertu da pinu-sail baten ondorioz.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:





## GOMENDIOA

1. Erabateko lehentasunarekin beharrezkoa den memoriaren idazketa agindu dezala Dehesa edo Braceras delako bidearen mugaketa espedientearen izapidetzea burutu ahal izateko.
2. Albait lasterren mugaketa espedientea sustatu dezala eta, hala badagokio, baita Dehesa edo Braceras delako bidearen ofiziozko berritzea eta berreskuratzea ere.

